

4. KANALAK:

Gure zerbitzua **aplikazio** bidez helaraziko diegu bezeroei. Bertan, behar duten informazio guztia egongo da eskuragarri eta planak egitea nahi badituzte, bertatik aukeratu ahal dezakete zer egin nahi duten eta guk antolatuko diegu. Bestalde, gure berri emateko **sare sozialak** izango ditugu, Instagram eta Facebook edukiko ditugu. Horrela, **publizitatea** egin dezakegu eta jende gehiagori jakinarazi zer den guk egiten duguna.

Gainera, **e-mail** bat edukiko dugu, batenbatek zalantzak izanez gero edo laguntza beharra edukiz gero, guk berari erantzun bat eman ahal izateko. Honekin batera, **telefono mugikorra** jarriko dugu gure aplikazioan, e-mailaren erabilera berdinerako. Gurekin aurrez aurre egotea nahi izanez gero, gure **lokalera** etortzeko aukera izango dute bezeroek, helbidea aplikazioan txertatuta egongo baita.

